


Dantza saio ikusgarria jaietan

Aurkezpen eta jantzi berriak izan ziren ▶ 7



Atenaseko urrea, Ibarra

DOMINA ▶ Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez Atenasen irabazitako urrezko dominarekin etorri ziren herenegun Ibarra

PARTE-HARTZEA ▶ Herri osoak parte hartu zuen ongietorri ekitaldiak: Udalak, herriko taldeek eta hainbat herritarrek ▶ 2-3



Harrera. Herriaren sarreran egin zieten ongietorria herritarrek Xabi Fernandez eta Iker Martinez Atenaseko txapeldunei; argazkian, dantzariaren saioa. INIGO TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Kontseilua eta Udalaren arteko hitzarmena ▶ 4

ZURICH ASEGURUAK
MIGUEL LARRARTE PÉREZ
Tituludun Aseguru Artekaria

ETXEA • ISTRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES • ...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978
Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 **TOLOSA** • m.larrarte@euskaltel.net



Lasa, Bildarratz eta Mendiguren sinadura ekitaldian. LEIRE MONTES

BIDEGOIAN ▶

Jende asko elkartu zen igandean Zaldi Festan

Igor Castañares izan zen irabazlea, bere bi anaien aurretik ▶ 6

IBARRA ▶ XABI FERNANDEZI OMENALDIA

Xabi Fernandezi ongiatorria

Omenaldi beroa eskaini zion herriak Xabi Fernandezi herenegun jaioterrian; herriko talde eta erakunde guztiek eta herritarrek hartu zuten parte



Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribiarra pozik eskaini zieten omenaldiarekin. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

San Bartolome festak amaitu eta egun gutxira ibartarrek izan dute oraindik ere zer ospatu, izan ere, herengun Xabi Fernandezi merezitako omenaldia prestatu baitzion herriak. Atenaseko olinpiar jokotan belan, 49er modalitatean, urrea irabazi ondoren astelehenean itzuli ziren Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribiarra Euskal Herrira. Jende ugari zuten zain hegazkinetik jaistean; han ziren beraien senitartekoak eta lagunak lortu zutenagatik zoriontzeko eta besarkada bat emateko asmoz.

Urrea irabazi zuten momentuan hasi zen askorentzat festa, baina benetako omenaldia pasa den asteartean egin zion herriak ibartarrari.

Arratsaldeko zazpiak eta er-

dietarako zeuden herritarrek deituak herriko sarreran eta ordu horretarako asko ziren bertaratu zirenak. Koadrilakoek suziarik botatzeari ekin zioten festa animatzen hasteko eta gogotsu ageri zen jendea irabazleak noiz agertuko zain.

Urrezkoak irudikatuz kar-toizko dominak banatu zituzten bertaratu zirenek lepotik zintzilak jar zituzten, eta geroago askok irabazleei bertan sinatzeko ere eskatuko zieten.

Xabi eta Iker azaldu ziren eta txalo zaparrada eta burrunben artean eman zion bildura zegoen jendetzak ongi etorria. Sarreran hasi eta herriko plazan amaituko zen omenaldia, eta hasteko ohiko aurreku dantza eskaini zion Alurr dantza taldeko Iñaki Ulaziak.

Beraien ontzi irabazlea irudikatuz, koadrilak txalupa gurgildun bat prestatu zuten,

barrura igo eta plazaraino ontzian joan zitezten. Bidean sorpresa bat baino gehiago izango zituzten zain.

Talde guztien parte hartzea

Ontzi barruan ziren, baina etziren beraiek ontzia gidatzearen lana izango zutenak; ontzia soka luze batez lotu zuten eta Ibarrako sokatira taldekoek bultzatu zuten plazaraino.

Hauen aurretik dultzaineroek alaitu zuten ibilbidea eta Ibarrako motozaleen presentzia ere nabari zen; ontziaren atzean, berriz, Ibarrako zikloturistek lagundu zieten plazarako bidean; herriko erakunde, talde eta elkarteek omenaldi honetan partaide izan nahi zuten eta baita gainerako herritarrek ere, guztiek ikusi eta agurtu nahi izan zituzten bi irabazleak.

Xabiren etxe parean izan zen lehenengo geldidunea, bertan baitziren zain Ibarrako elizako korukoak *Boga boga marinelak* abestu zitelarik. Ondoren Txumitxa tabernaren parean geratu ziren; kasu honetan ikastolako haur koadrila jarri zen lanean eta Jesus Peñagarikanok eginiko bertso pareta abestu zion bikoteari.

Plazara heldu ziren eta bazuten oraindik ere zertaz gozatu omenaldi bero honetan; Haritz Sudupe eta Arkaitz Uranga txalaparta joaz hasi ziren, eta ondoren arkupe bat egin zuten gimnasia erritmikokoek, txirindulariek eta mendizaleek euren tresnekin bi omenduei udaletxerako bidea ireki zitelarik. Udaletxe atarian, Alurr dantza taldekoek *Arratiako dantza* eskaini zieten. Hau amaitu ostean plaza bete zuten herritarren artean Ibarrako

Jesus Peñagarikanok idatzi eta Ibarrako ikastolako haur koadrilak bere etxearen parean Xabi eta Ikerrri abestu zizkieten bi bertsoak:

Belautzian kulunkan,
euskal marinel bikoa,
etxearen babesean
Olinporaino igoa,
Xabi itsasgizon trebe
jaiotzez lehorrekoa,
atzera begirattuta,
Yesan daukagu gakoa,
aita ta Enekorekin
jolasa eta jokoa,
hura zen abiapuntu
helburu Atenaskoa,
buruan olibondoa
urrez jantzita kolkoa,
mundiala bazintugun
ta orain olinpikoa.

Zorionak eman nahian
Ibarrak jantzi galako,
horrelakorik sekula
hemen izan ez delako,
ametsak urre bihurtu
egin dira benetako,
gailurrean zaude baina
jarraitu egin beharko,
animo! eta prestatu
beste lehiaketarako,
Xabi, egokitzen bada
haize zakarra kontrako,
kresala nahiz urrun dugun
egingo dugu bertako,
ta ibartarron bultzada
ez zaizu inoiz faltako.

ereserkia abestu zuten eta gero Xabier Artola izan zen bertso bat eskaini ziena.

Opariak jasotzeko txanda zen; Jexux Peñagarikanok eginiko bertsoak harri batean grabaturik eman zien eta honetaz gain erramuak, loreak, txapelak, bai koadrilakoen eskutik eta baita alkatearen eskutik ere herriaren izenean.

Omenaldirako prestatu ziren ekintzekin amaitzeko, danborradaz gozatzeko aukera izan zuten udaletxeko balkoitik.

Hunkiturik omenduak

Balkoi horretatik hitz egin zuten bi protagonistek; eskerrak eman zizkieten herriari prestatutako omenaldiagatik. Oso pozik eta hunkiturik sentitzen zirela adierazi zuten, domina banatzean sentitu zutena baino zurrara handiagoa zutela esan zuten eta ez zutela astearte arratsalde hura ahaztuko. Arratsalde paregabea izan zen beraiantzat, baina ez zen oraindik amaituko, gauean ere parranda polita baitzuten zain, koadrilakoekin. Zorionak Xabi eta Iker!



Koadrilakoek prestatutako ontzian iritsi ziren plazaraino. I. TERRADILLOS



Ibarrako Ikastolako haurrek bertsoa abestu zieten. I. TERRADILLOS



Arkupea egin zieten kirolariei plazan udaletxeko atariraino I. TERRADILLOS

KIROLA ▶

Albiste ugari abuztuan zehar

Kirol albisteak izan dira nagusi, baina bestelakoak ere izan dira gizarte, politika eta kultura alorretan

JOXEMI SAIZAR

Urtero bezala, abuztuko oporraldiarekin batera, aktibitatea asko jaisten da Tolosaldean. Eskualdeko herri askotan urteko jai nagusiak izaten dira, gehienbat Ama Birjina eta San Bartolomearen omenez, eta giro bikainez pasatu dira aurten ere. Baina horrekin batera albiste ugari izan da abuztuan zehar, batez ere kirol aldetik, baina baita beste alor batzuetan ere, garabien greba adibidez.

Atenaseko Olinpiar Jokoe-tan Xabier Fernandez ibartarrak Iker Martinez hondarribitarrarekin lortutako urrezko dominarekin batera, Xabi Alonso tolosarra Realetik Liverpoolera joatea izan da kirol albiste garrantzitsuena. Uda osoan zehar Real Madrilera joango ote zen zalantza izan zen, baina azkenean futbolari tolosarrak Ingalaterrako ligako talde garrantzitsuenetakoarekin sinatu du lau urte-rako.



Xabi Alonso Liverpoolen.

Iker Karrera amezketarrak marka garrantzitsua jarri zuen uztailaren 31n: Larraitzetik Txindokira 11 aldiz igo zen 24 ordutan. Gutxienez bederatzia goiera egitea zuen helburua, lehendik egindako markak gainditzeko, baina erraz gainditu zuen eta 22:55ean bukatu zuen saioa, beste go-



Josu Agirre Italian ariko da profesionalen artean. IÑIGO ASENSIO

era bat egiteko denborarik ez zuelako. Igoera asko 45-50 minututan egin zituen eta jaitzierak ordu erdian, bero handia (gailurrean 45° C izatera iritsi zen) izan arren. Euskal Mendi Federazioak marka erregistratu zuen eta homologatu egin nahi du.

Agirreraren aurrerapausoa

Txirrindularitzan ere izan da zer kontatu. Serbitzu taldeko Josu Agirre tolosarra probatu-ko du irailaren 10etik 26ra LPR talde italiar profesionalak lau lasterketatan. Aurten lortutako zortzi garaipenen sari bezala hartu daiteke albiste hau, azkenak Altzoko Igoeran uztailaren 31n (Joseba Agirrezabala anoetarra hirugarren izan zen) eta Giro delle Valli Cunesiko etapan, Italian. Mañariako Andra Mari Sarian bigarren izan zen abuztuaren 22an.

Gasteen artean Oriako Txirrindulari Eskolako Eneko Gurrutxaga bigarren eta Xabier Iriarte laugarren izan ziren abuztuaren 22an Erlantz Etxeberriak irabazi zuen Ibarrako San Bartolome Sarian. Larratxoko Proban berriz, abuztuaren 29an, Aitor Olano izan zen bigarren eta Gurrutxaga laugarren izan zen.

Ugaitz Renobales pilotariak beste txapelketa bat irabazi du. Oraingo honetan Donostiako Antiguoa auzoan Galarraga oriotarrarekin batera Olababal-Betelu leitzarren aurka

22-21 irabazi zuten hilaren 29an.

Pilotarekin jarraituz, Casino Kursaal erremonete sarian bi tolosar izan dira protagonista etorkizuneko mailan. Xanti Aizpurua eta Asier Zalakain. Biak iritsi ziren finalera jokalaria izan zuten Uterga-Aizpurua II. izan ziren txapelkunak Zalakain-Olazarri 35-31 irabazi ondoren.

Beste alorretan

Baina kirola alde batera utziz, beste alorretan ere izan da berri ugari eskualdean. Garabien grebak izan du bere eragina Tolosaldean eta auto matoratu ugari ikus zitekeen abuztuan zehar inguruko errepideetan. Eztabaida batzuk sortu dira baita ere hilaren 23an Donostian hiruburu izatearen 150. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldiaren inguruan. Jokin Bildarratz alkatea ez zen ekitaldi horretan izan Tolosak hiriburutza galtzea ospatzeko moduko gertaera ez zela pentsatuta eta Odon Elorza Donostiako alkateak ez zuen erabakia ondo hartu.

Kultura aldetik ere bi berri garrantzitsu izan da abuztuan. Alde batetik, Fronton jabeteko Roberto Ruiz sukaldaria Bartzelonako Forumean izan da babarrunaz hitz egiten eta Bide Ertzean musika taldeak disko berria iragarri du udazken honetarako.

EUSKARA ▶

Elkarlan hitzarmena sinatu dute Udalak eta Kontseiluak

Orain arte egindako bideari jarraitu eta elkarrekin pausoak ematen jarraitu nahi dutela berretsi dute horrela; 6.000 euroko ekarpena egin dio Tolosako Udalak Kontseiluari



Ezkerretik hasita, Onintza Lasa, Jokin Bildarratz eta Xabier Mendiguren, atzoko agerraldian. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Eskualdeko beste hainbat eragilek bezala, Tolosako Udalak ere euskararen alde lanean jarraitzeko asmoa agertu du beste behin. Atzo goizean urtebeteko elkarlan hitzarmena sinatu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin. Orain arte egindako bideari jarraitu eta elkarrekin pausoak ematen segitu nahi dutela berretsi zuten biak horrela.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Onintza Lasa Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeko burua eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia izan ziren, hain zuzen ere, atzoko sinadura ekitaldian. «Pozik» agertu ziren hirurak, eta lankidetzat hitzarmenaren «garrantzia» azpimarratu zuten.

Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenen esanetan, «hemen egindakoak eredu izan behar du beste herri zein eskualderentzat. Ondo egindako zerbaiten ispilu da Tolosaldea». Era berean, lortutakoa «hainbat eta hainbat lagun elkarlanagatik posible» izan dela gogoratu zuen. Zentzu horretan, hizkuntz normalizazioan gizarte eragileen inplikazioa beharrezkoa dela adierazi zuen Mendigurenek; baina instituzioek ere egin behar garrantzitsua daukatela esan zuen, era berean.

Tolosako Udalak, Gobernu batzordean, joan den uztailaren 29an onartu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin hitzarmena sinatzea. Erabaki horren ondorioz, 6.000 euroko ekarpena egin dio Udalak Kontseiluari.

Akordioa eta Ekintza Plana

Bi atal jasotzen ditu sinatu Tolosako Udalak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sinatu berri duten elkarlanerako hitzarmenak: Bai Euskarari Akordioarekin jarraitzea alde batetik; eta, bestetik, Ekintza Planaren sostengua.

Bi atal horiek martxan dira dagoeneko Tolosaldean; eta

FRUITUAK ▶

Honako hauexek dira egindako lanak orain arte Tolosaldean eman dituenak:

BAI EUSKARARI

▶ Tolosaldeko 83 eragilek Bai Euskarari ziurtagiria —Bidean, Guk Zerbitzua Euskaraz eta Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz— eskuratu dute; eta beste hainbat, konpromisoa adierazita, lortzeko bidean dira.

▶ Euskaldekoko euskalgintzaren inplikazioa handia da, bai Jarraipen Batzordean baita gizarte eragileekiko harremanetan ere.

▶ Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarekin (EBPN) uztartzen da Kontseiluaren Bai Euskarari Akordioa. Eskualdean, Tolosan eta Villabonan ari da garatzen plan hori.

EKINTZA PLANA

▶ Lurralde eta egoera desberdin bakoitzetik abiatuz, marko komuna erdietsi behar du euskarak bere eremuan; ofizialtasun juridikoa lortuz horrelakorik ez dagoen lurralde edo zonaldeetan, eta ofizialtasun erreala ofiziala den lekuetan. Tolosaldean ere abian da norbanakoek konpromiso parte-hartze prozesua.

fruitu ugari eman dute, gainera. Bai Euskarari Akordioaren baitan, laurogeitik gora eragilek badute ziurtagiria, eta beste asko lortzeko bidean dira. Euskalgintzaren inplikazioa, era berean, handia da eskualdean. Gainera, Kontseiluaren Bai Euskarari Akordioa eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) uztartzen diren doaz aurrera Tolosan eta Villabonan. Ekintza Planari dago-kionean, bestalde, norbanakoek konpromiso-hartze prozesua ere abian jarri dute Tolosaldean.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



MUSIKA ▶

Jazz doinuekin emango diote amaiera aurtengo Gau Girori

Zuri & Beltz bikoteak Frontonen eskainiko duen saioarekin bukatuko da bihar

IRATXE ETXEBESTE

Etxeko lanetan ari zela musika jarri ohi zuen Olatzek, eta haren soinuan jardun kantuan, begiak itxita, hantxe irudikatzen zuen publikoarentzat. Sukaldeko horma zurietan du-rundi eginez leihotik irteten ziren deiadar fin haiek xarma eragiten zioten jendeari: teila-tu konpontzailetik hasi, alboko plazakoetatik segi eta urruneko entzule zorrotzeraino. Bera, ordea, kexu zen artean: «Zergatik ez nintzen beltz jaino, ama?». Berezko doinuek bilatzen zituen ahotsak orduan.

Musika eskoletako gelen ilunpean, borroka gazi-go-zaan ari zen aspalditik Bea bere pianoarekin. Teklen eta partituren zuri-beltzen artean bere koloreko bidea nondik eta nola egin, hartxantxe buru-belarri. Handik kanpora ere, bateko talde zarpailarekin, besteko egongela dotorean, guztietan zebilen proba egiten. «barneko isuriarekin bete-beteen egokitu-tuko zen zerbaiten atzetik». Beren ahotsa, berezkoa, bilatzen zuten Bearen notek.

Eta, horra, elkarrengana bildu biak. Pianoaren eta ahotsaren indar ezkutuek bat eginik, argiak eta ilunak, ñabardura sotilez betetako soiltasun baten oreka hauskorrean. Isiltasunaren gainean hari mehe bat josiz, oihu zein xuxurla: barren-barrengo zirrarenarena. Horixe da egun Olatz Pratek eta Bea Hurtadok, ahotsarekin eta pianoan, hurrenez hurren, zuzenekoan ikus-entzuleari es-



Zuri & Beltz bikotea Tolosako Fronton kafetegian ariko da bihar gauean Gau Giro programaren baitan. HITZA

kaintzen diotena. Elkarrengana lotu zirenetik batean eta bestean jardun du Zuri & Beltz bikoteak, eta jendearren arreta piztea lortu dute Pratek eta Hurtadok emanaldi bakoitzarekin. Bihar Tolosako Fronton kafetegian ariko dira 23:00etatik aurrera, eta udako Gau Giro programari amaiera emango dio emanaldi horrek.

Biharko kontzerturako beste bi musikari ere izango dituzte lagun, gainera: Ivan San Miguel kontrabaxuarekin eta Fran Gazol baterian. Guztiek

batean osatu egingo dute, nolabait, bikotearen jarduna.

Musikariek prestatu duten errepertorioan («jazzaren estandarrak») omen dira nagusi, betiere bestelako musika doinuek baztertu gabe. Hala ere, «filmeko soinu bandak ere eskainiko ditugu». Ingelesezt, gaztelaniaz eta euskaraz kantatuko dute gehienbat, eta, besteak beste, John D. Loudermilleren *Turn me on*, J. Fred Coatesen *You go to my head*, John Canderren *Cabaret* eta Arthur Hamiltonen *Cry me a river* es-

kainiko dituzte. Jatorriz ingelesezkoak edo frantsesak diren kantu batzuk euskarara moldatu dituzte, bestalde, Juan Garzia Garmendiak sortutako hitzei esker, eta *Bakardadean*, *Unez une*, *Hostoak orbel* eta *Herri bat* abestiak ere ez dira faltako, hortaz.

Lehenagotik ikusia duenarentzat ere emanaldi aproposa dela esan dute musikariek, Billie Holidayk zioena gogoan hartuta, birritan abesti bat modu berean kantatzen duenak ez duelako musika egiten.

JUBILATUAK ▶

Benidormera bidaia antolatuta du Harizpek


Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak bidaia antolatuta du urriaren 16tik 30era Benidormera (Alacant) jubilatutako eta pentsiodunak oporretara joan daitezkeen. Bazkideek 365 euro ordaindu beharko dute izena emanez gero, eta gainerakoek, berriz, 370 euro; horietatik 100 izena ematerakoan bertan ordaindu behar dira, eta gainerakoak txartela jasotzerakoan. Prezio horretan sartuta daude joan-etorria autobusean, hamalau egunetako egonaldia mantenu osoan, bidaia aseguru eta gidaria, besteak beste. Bideko otorduko norberak ordaindu beharko ditu, bestalde. Hilaren 30a da txartelak jasotzeko azken eguna.

HEZKUNTZA ▶

HHI-k matrikula epea zabalduko du hilaren 6an

Helduen Heziketa Iraunkorrrak 2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalduko du hilaren 6an, astelehena, 18 urtetik gorakoentzat. DBH graduatua, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatetako sarrera, oinarriko ezagueren sakontzea, lehen hezkuntza, etorkintzako gaztelera ikastaroak, irakurketa eta idazketa hastapenak, hizkuntzak, eskulanak, informatika hastapenak eta Internet, egur taila... Askotariko eskaintza egin du ikastetxe publikoak ikasturte berriko ere, eta izena ematen dutenek doan izango dituzte eskolak. Informazio gehiagorako: 943 67 26 60.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

<p>egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Tolosa. Igaralden 120 m²-ko etxebizitza salgai, 4 gelakoa, egongela eta jangelarekin. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Tolosaldea. 3 solairuko etxebizitza salgai, 30.000 m²-ko lursailarekin. Banatzeko aukera. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Andoain. 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Ibarra. Etxebizitza alokairuan, 3 logelakoa,</p>	<p>egongelarekin eta bainugelarekin. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Anoeta. Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m²-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Berrobi. Etxebizitza berria, 3 logelakoa. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Alegia. Bigarren eskuo etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Alegia. Etxebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Amezketza. Duplexa salgai; 70 m²-koa, eraiki berria, igogailuarekin eta berogailuarekin. 28.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.</p>	<p>Idiazabal. Eraikuntza berriko etxe abikia. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Goierrri. Bi familientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Ordizia. Etxe abikiak salgai. Berriak. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Legorreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Elduain. Etxe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.</p> <p>Aia. Apartamentu bat eta pisu berri bat salgai. Azken solairuko etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.</p>	<p>Corella. Etxe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeatutakoak. Porbarekin, 2 eta 3 gelakoa, bainua eta sukaldetz hornitua. 800. 1.000 eta 1.200 m²-ko terrenoarekin. Pizina eta guzti. 13.500.000 pezeta. Mandio. Telefono zenbakia: 669 87 19 09.</p> <p>Gorriti. 1.500 m²-ko lursaila salgai, etxebizitza bat egiteko. Mandio. 669 87 19 09.</p>
<p>LOKALAK</p> <p>Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.</p> <p>Goierrri. Erretea salgai Naturaren erdian. Terrazarekin eta bezero finkoekin. Prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.</p>			

BIDEGOIAN ▶ JAIK

Jende ugari bildu zen IV. Zaldi Festan

Iaz bezala Usarraga Berri zelaian izan zen lasterketa; Garikoitz Lasa bidaniarrak bostgarren postua lortu zuen

OLAIA ESKITXABEL

Animoak bero-bero egon ziren pasa den igandean, abuztuaren 29an, IV. Zaldi Lasterketan. Iaz estreinekoz Bidaniako Usarraga Berri zelaian egin zen lasterketa eta emaitzarekin gustura, «berriro ere leku berean egiteko erabakia» hartu zuten antolatzaileek.

Hamahiru parte-hartzailek eman zuten izena, iaz baino bi gehiagok; tartean, herriko gazte bat ere aurkitzen zen, Garikoitz Lasa, alegia.

Hiru talde egin zituzten; ibilaldiari lau itzuli eman ondoren (buelta bakoitzak 350 metro inguru zituen) lehenengo eta bigarren sailkatu ziren zaldunek hartu zuten parte finalean. Hiru kanporaketetan lehia bizia izan zen; azkenean, Josu eta Igor Castañares, Garikoitz Lasa, Asier, Aitor eta Iñaki sailkatu ziren finalerako.

Finalean, berehala hartu zuen aurre Igor Castañares; esfortzu handirik egin gabe lortu zuen garaipena. Irabazlearen izena hasieratik gaarbi geratu bazen ere, ezustekoak izan ziren; parte-hartzaileetako bat lurrera erori zen azken itzulian baina ez zuen zauririk

egin. Txapeldunaren zaldiak, bestalde, odoletan amaitu zuen lasterketa mingaineko zaina leheritu ondoren;

Lasterketan zehar, boletoak saldu zituzten Gazte Batzordeko kideek; saritutako zenbakia 3.983a izan zen eta oraindik ez da saritua agertu. Goiatzeko

Eguzkitza ostatuan lau lagunentzako afaria eta gaua pasatzeko aukera izango du boleto sarituaren jabeak. Zenbaki hori eskuartearen duenari Eguzkitza ostatura (943 58 09 46 telefono zenbakira) deitzeko eskaera luzatu dute Gazte Batzordeko kideek.



Kusleak. Zaldi lasterketa ikustera gerturatu zirenek hurbiletik jarraitu zuten zaldunen lana. O.ESKITXABEL



Jauziak. Erraz gaingitu zituzten parte-hartzaileek ibilaldian jarritako lasto fardoak lasterketen bitzitasuna areagotuz. O.ESKITXABEL



Irabazlea. Igor Castañares izan zen zaldi lasterketako irabazlea; atzetik bere anaia, Josu, eta Asier sailkatu ziren. O.ESKITXABEL

ZALDUNAK ▶

Hamahiru zaldunek hartu dute parte aurtengo zaldi lasterketan. Parte-hartzaile guztiek jaso zuten saria; seigarren postutik atzera sailkatu zirenek 60na euro jaso zuten «gubxienez izandako gastuak ordaintzeko», diote antolatzaileek.

SAILKAPENA

Igor Castañares. 300 euro eta garaikurra irabazi zuen.
Josu Castañares. 240 euro.
Asier. 190 euro.
Iñaki. 120 euro.
Garikoitz Lasa. 90 euro.
Aitor. 60 euro.

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa txapelketako final-laurdenak, egunotan

Gaur, bihar eta etzi 22:00etan izango dira partidak Larrunari pilotalekuan

O.ESKITXABEL

Uztailan jarri zen martxan XV. Joxean Tolosa pilota txapelketa; orduz geroztik, atsendik hartu gabe jokatu dira partidak udarako asteburuetan.

Kadete, gazte eta nagusi mailako pilotariak eskuz baina jokatzeko dute Joxean Tolosa txapelketan. Maila bakoitzeko finaleko partidak, irailaren 19an jokatu dituzte.

Atzotik hasi eta larunbatera, irailaren 4a, bitarte final-laurdenetako partidak jokatu dituzte; maila bakoitzeko partida bana ikusi ahal izango dute egunotan Larrunari pilotalekura gerturatzeko direnak. Gaur, bihar eta etzi 22:00etatik aurrera izango dira partidak.

PARTIDAK ▶

Final-laurdenetako partidak 22:00etatik aurrera jokatu dira.

GAUR

Kadeteak. Iragi / Andreu.
Gazteak. Renobales / Pika-bea.
Nagusiak. Baez II / Retegi.

BIHAR

Kadeteak. Otxandorena / Iturrioz.
Gazteak. Galarraga / Goenaga.
Nagusiak. Aranburu II / San Sebastian.

ETZI

Kadeteak. Legarreta / Goikoetxea.
Gazteak. Axpe / Galarraga.
Nagusiak. Baez I / Arruti.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

ARESO ▶

Giro bikaina eta jendetza, aurtengo jaien ezaugarri

Aurreikusita zegoen egitaraua oso osoan bete da eta gustura dira antolatzaileak ere

J. ASTIBIA

Oporraldiaren bueltan, ikasurte berriari hasiera emateko indarrak bizteko erremedio gisa, udako egunik alaientsuez oroitzea gomendatzen dute adituek, eta kasu eginez, herriko festak etorriko zaizkio bati baino gehiagori gogora.

Izan ere, aurtun halaxe joan baitziren amaberjinak, bertan adierazi dutenez: alai, giro bikainarekin eta jendetsu. «Oso ongi joan ziren, giro eder askoan. Festetako ekitaldietan, ikusteko zirenetan jende asko egon zen begira, eta parte hartzeak zirenetan, berriz, jendeak ondo erantzun zuen. Ekitaldi guztietan jende asko izan da eta gainera umore ezin hobean», zioten. Nabarmenezko modukotzat jo zuten, esate baterako festetako azken egunean egin zen herri bazkaria, izan ere «160 lagun bildu ginen mahaira, plazan eta ikaragarritako giroa sortu zen», erantsi dute, oraindik ere irriparrari ihes egiten utziz. «Berri berriak hasiko ginatuek».

LEITZA ▶

Tolosako autobusaz bilera izanen da gaur

J. ASTIBIA

Gaur osteguna, irailak 2, arratsalde, 18:30ean zehazki eta Oialde tabernan, Tolosako autobusaz hitz egiteko bilera deialdia egin dute. Hain zuzen ere, hastear dagoen 2004-2005 ikasturtean, ikasketak egitera Tolosara joan behar duten ikasleek garraio bidez hitzegiteko bildu behar dute eta interesatuei bereziki azaltzeko eskaria egin zaie ohar baten bidez, «egon daitezkeen arazok, ahal izateko», dionez.

LEITZA ▶ FESTAK

XX. mende hasierako festa giroa antzeztu zuten, arropa berriekin *Ingurutxo*a dantzatzu. JAIONE ASTIBIA

Etenik gabeko festa eta giroa izan dira Ingurutxoaren airean

Gauetan beste alditan baino jendetza ttikixegoa ibili ote den aipatzen da

JAIONE ASTIBIA

Igaro ziren, bada, festak eta asko hurrengo urtekoen zain jarrita dauden arren, gazte franko Uitzikoan aierrak daude. Bitartean santiburtziotan igaro, jasan eta eragindako hainbat gertakariaren kontu-kontari alai eta gozoan, eta gazian ere, ari da oraindik jendea.

Kontuak kontu, protagonista asko izan dira festa egun hauek, dela umeenean, dela gainerakoetan, nahiz kirolari, nahiz kantari eta noski herritarrek berak ere, plazan ez ezik, kalean ere giroa jarriz, nahiz ikusle gisa, nahiz festa giroan sartu eta dantzari ekinez.

Hain zuzen ere, bereziki aipatzeko moduko ekitaldia pesta bigarrenean herriko dantzariak eskaini zuten dantza saioa izan zen. Ikusgarria alde batekin, Ingurutxorako egin dituzten arropa berriekin ateratu zirelako jendaurrean, eta bestetik, dantza saioa bera aurkeztu edo egin zuten moduagatik beragatik ere. Izan ere, arropa berri hauek 1910-15 inguruko soineko eta jazkeraren modelo zehatzak izaki, garai hartan berean dantzatzen zen estilora egin zuten Ingurutxo ere, «Aita Olazaranez idatzita utzi

zituenean gure dantza honen ezaugarriak eta horien ahalik eta interpretaziorik zuzenenak», erakutsi zuten, egunean bertan argitu zutenek. Ingurutxo-ko pauso desberdinen tartetan, neska-mutilen arteko jostaketa eta jolasak goxatuz zioaz bitartean, bestelako dantza motak egin zituzten. Festetako ikusizunik jendetsuena izan zela ere esan daitezke bestalde.



Presoen aldeko kalejira ere egin zen herrian barrena. J. ASTIBIA

Torrean, pistola ateraz

Herriko festetako azken egunean, 15etik 16rako goizaldean, 6:00ak aldera, paisanoz zihoa zen bi guardia zibiletako batek, bere pistola ateratu eta jendea apuntatu zuen, Torrean tabernan, jakitera eman zenez.

Herria festetan zegoen 10az geroztik eta azken egunean eman zen gertakizun hau. Une horietan, han bertan zeuden lekukoek adierazi dutenez, bi lagun hauek sartu eta eskatu zuten edaria hartu bitartean, berehala hasi omen ziren «kaineroak irekitzen eta atenezioa deitu nahian» eta «batek gerria zeraman pistola erakusten zion jendeari behin eta

berriz, eta guardia zibiletak zirela ohartu ginen», kontatzen zuten. «Barrenean jende asko zegoen, eta ikara eta tentsioa nabarmena zen», argitu dute lekukoek.

Gauzak horrela, bi agente hauek piskanaka kanpora ateratu omen ziren eta tabernako atean isteko baliatu omen zuten aukera. Orduantxe, «dehen erakusten aritu zen hark berak, pistola gerriatik ateratu eta atean zeuden lagunak apuntatu zituen», esan dute. «Ikara dezente igaro genuen».

Jokabide hau salatuz, bere garaian Leitzako Ezker Atertzaleak prentsa-oharra igorri zuten komunikabideetara

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Oiarreaga J., M.J. Iraola, 10, (Tolosa). 943 67 24 38.
Plaza, M., Elbarren, 36, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaidea. 687 41 01 18.
leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Haurtzain. Neska bat behar da arratsaldeetarako umeak zaintzeko. Tfnoa.: 650 81 96 26.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 2a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abeltzasketa, Aduna, Abuzur, Alegia, Alkiza, Alzo, Anzuetza, Anzola, Baiarriain, Baratzegi, Eibarrin, Herrialde, Itarra, Iturriz, Leizorain, Lizartza, Orendain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria, Kultura Saila

IBAN ZENBOTOIA

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

24

hotzera

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Irailaren 5ean Kostako Itzulia txirringulaz antolatu du Peña Abrahamek. Irteera 9:00etan izango da, Mandubiako mendatean lehen geldialdia hamaiketako egiteko, bazkaria Orioko Balea elkarrean eta itzulera 19:00etarako. Izen-ematea: Haizea tabernan 20 euroren truke.

Tolosa. Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara.

DANTZA

Tolosa. Kaukasoko Konpainia Estatalak dantza emanaldia eskainiko du Leidor zineman bihar 20:00etan. Sarrerak Kultur Etxean 10 eurotan (6 euro Gazte Txartelarekin) daude salgai.

ERAKUSKETA

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxearen Puzzleak pintura erakusketa Aranburu Jauregian bihartik urriaren 9ra. Inaugurazioa bihar 19:30ean.

JAIAK


Elduain. Bihar jaien hasiera: 16:30ean txupinazoa eta kalejira; eta 21:30ean herri afaria Kontsejun.

MUSIKA

Tolosa. Gau Giro programazioa bukatzeko, Zurian beltz musika taldearen kontzertua izango da bihar Fronton kafetegian 23:00etan.



Camprodon herria, Gironan. LEIRE MONTES



L'Estartit-eko kostaldea, Begur-etik aterata, Gironan. HITZA

Oporretako irudien eske

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Nondik nora ibili zarete opor hauetan? Ateratako argazkiak bidal itzazue HITZAra; argitara emango ditugu



Mendialdean jende asko ibili da; argazkian Pirinioetako Nuria monastegia. IBAN ZENBOTOIA

ERREDAKZIOA

Mendian, kostaldean, hiriren batean edo herri txikiren batean, atzerrian edo hemen inguruan ibiliko zineten opor egunetan. Seguraski ondo-ondo pasatuko zenuten. Baita argazki politak atera ere.

Kontua da orain abuztua bukatu dela, batzuentzat oporrak ere bai —HITZAkoentzat behintzat bai— eta zuen oporretako irudien eske gatzokizue. Koadrilan, familian, bikotearekin edo bakarrik ibili zarenen, nondik nora, gehien edo gutxien gustatu zaizuena kontu dezaitezue, testu txikiren bat behar baitugu argazkiarekin batera. Eta bi gauzak —argazkia eta testua— gure erredakziora bidali: Araba etorbidea 5, behea. Tolosa. Posta elektronikoz ere bidal ditzakezue: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info. Bidalitakoak argitara emango ditugu datozen egunetan. Behar bada asko izango dira, eta aukeraketa bat egin beharko dugu.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Narrea Mendez (Anoeta).
 Atzo 5 urte. Zorionak Unai, aitabxo eta amaboren partetik.



URTE ASKOAN
Jokin Martin Kortajarena (Zizurkil).
 Gaur 4 urte. Zorionak etbekeen partetik eta muxu pottolo bat pottokin.



URTE ASKOAN
Julen Albeniz (Tolosa).
 Zorionak bere gurasoen eta arrebairen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!